

# HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

## MINTZAMEN PROBA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- Lehenengo ariketa aldez aurretik prestatu behar duzu.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

	PROBAREN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
MINTZAMEN PROBA	<p><b>Aurkezpena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez da ebaluatuko.</li> <li>• Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du (Nor/NANa/nongoa/lana).</li> </ul> <p><b>1. ariketa: Bakarrizketa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aldez aurretik prestatuko duzun gai bat azaldu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.</li> <li>• Gaia, hari buruzko argazkiak, informazio laburra eta galderak edukiko dituzu azalpena bideratzeko.</li> <li>• Denbora: 4 min azalpena egiteko eta 1 min aztertzailearen galderari erantzuteko.</li> <li>• Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio.</li> <li>• 15 puntu.</li> </ul> <p><b>2. ariketa: Elkarrizketa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan.</li> <li>• Helburua iritzia trukatzea, argudiatzea eta eztabaidatzea da.</li> <li>• Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 10 min elkarrizketan aritzeko.</li> <li>• 15 puntu.</li> </ul>	<p>35-40 min</p> <p>(15 min gaia prestatzeko dira)</p>	30	15

## 1. ariketa. Azaldu gaia eta eman zure iritzia

- 15 min dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.
- Ebaluatzerakoan, hauxek hartuko dira kontuan:
  - gaiari heldu diozun,
  - esaten duzuna ulergarria den,
  - euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

## LARRUZKO ARROPARIK, BAI ALA EZ?



Foka-larruzko berokiak erakutsi zituzten Donostian. Bisoizkoak. Astrakanezkoak. Azeri larruz egindakoak...

Ustezko dotorezia horren atzean dagoen sufrimendua erakustea izan zen moda-desfilearen xedea. Izan ere, hainbat irudiz lagunduta, beroki bakoitza egiteko zenbat animalia erabili diren azaldu zuten, eta zein modu ankerrean tratatzen dituzten.

Hitzek eta irudiek bat egin zuten. Desfilean, jantziak odolez betetzen hasi ziren apurka-apurka, dena odol bihurtu arte. Pankarta handi bat erakutsiz bukatu zuten ekimena: Larruak=Tortura. Publikoa zur eta lur utzi zuten. «Negar egin duenik ere izan da».

**Berria, 2010eko urria. Egokitua**

Europar larruen merkatuak izugarri behera egin duela ikusita, larruaren industriak denboraldi-hasiera guztietan sustapen-kanpainak egiten ditu aldeko argudioak kaleratuta:

1. Larruaren industriak kontrol zorrotzak egiten ditu babestutako animalien larruak ez direla erabiltzen ziurtatzeko.
2. Larrua lortzeko animalien haztegiatan animaliak primeran zaintzen dituzte, larruginak eurak baitira animalia osasuntsuak hazteko interes handiena dutenak.
3. Larru-industria diru-iturri eta lanpostu-sortzaile garrantzitsua da.
4. Ez da logikoa larruzko berokien kontra egotea, eta larruzko oinetakoak janzteak.
5. Larru naturala benetan ekologikoa da, ez, ordea, larru sintetikoa.

**<www.asanda.org>. Egokitua**

- Gizakia kobazuloetan bizi zenean ere erabiltzen zen animalien larrua arropa egiteko.
- Zer iritzi daukazu larruzko arropaz?
- Desberdintasunik ikusten duzu larruzko arropa iledunen eta ilerik gabekoen artean?
- Zer deritzazu animalien eskubideen defentsarako erakundeen ekitaldiei?

## 1. ariketa. Azaldu gaia eta eman zure iritzia

- 15 min dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.
- Ebaluatzerakoan, hauxek hartuko dira kontuan:
  - gaiari heldu diozun,
  - esaten duzuna ulergarria den,
  - euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

## KOMUNITATEAREN ALDEKO LANAK DIRU LAGUNTZEN TRUKE



Lanbidek komunitatearen aldeko lanetara deitu ahalko ditu diru-sarrerak bermatzeko errenta kobratzen ari diren pertsonak.

Oraindik ez dago argi nola egingo den. Ezinbesteko baldintza da lan horiek ordaindutako inolako lanik ez ordezkatzea. Agian, gizarteratzearen arloan lanean ari diren GKEetara bideratuko dituzte lanok. Berria da egitasmoa Eusko Jaurlaritzarentzat, eta zer moduz funtzionatzen duen ikusi nahi dute Gizarte Politiketako Sailean.

Alemanian, Danimarkan, Frantzia eta Europako beste hainbat herrialdetan badira martxan halako egitasmoak, eta horiei erreparatu diete sistema berria abiatzeko.

**Inerte:** «Bazen sasoi! Akabo egun osoan tabernan egoteari edota Bn kobratzeari.»

**Corona323:** «Hainbat lan egin dezakete: erreka- eta bide-bazterrak garbitu, graffitiak dituzten hormak margotu, adineko pertsonen medikuarenera edo erosketekin lagundu, gaueko zaintzak...»

**Raid:** «Hori lan-intrusismoa da. Familiarik gabeko nagusiak edota laguntzailea kontratatzeke dirurik ez dutenak badaude, Administrazioak egin beharko lieke kasu gizarte-laguntzaileak kontratatuta.»

**MaikP:** «Norvegian egiten duten bezala, liburutegietako liburuak digitalizatzeko aprobetxa dezatela.»

Berria, 2013ko abenduaren 18a. Egokitua

<foro.meneame.net> eta <www.elcorreo.com>. Egokitua.

- 
- Administrazioak kontratazioak murrizteko modu ezkutatu bat da?
  - Diru-laguntzak hartzen dituztenen artean alferkeria handia dago ala benetako beharrezkoak?
  - Diru-laguntzak jasotzen dituztenei ez al zaie ezer eskatu behar trukean?
  - Bizi dugun krisi-sasoi honetan Administrazioak diru bat aurrezteko modu bat izan daiteke?

## 2. ariketa

### **Gaiaren inguruko eztabaida egingo dugu orain.**

- Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizuegu gaiaren inguruko argazkiak eta informazioa.
- Helburua: iritzia trukatzea, argumentatzea eta eztabaidatzea.
- Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 10 min elkarrizketan aritzeko.

Kontuan hartuko dugu:

- elkarrizketan zenbat/nola parte hartzen duzuen,
- esaten duzuen ulergarria den eta zelan arrazoitzen duzuen,
- euskara nola erabiltzen duzuen: jarria, zuzentasuna eta aberastasuna.

**HOBE SENDAGAI KONBENTZIONALAK**



- Medikuek behartuta daude **zientifikoki** frogatutako **eraginkortasuna** duten **botikak** erabiltzera.
- **Gaixotasun** fisiko **larrietan**, aukerarik **onena** dira.
- Sendagai konbentzionaletan, **beti dator** osagaien berri eman eta albo-ondorioak azaltzen dituen **erabilera-orria**.
- Botikak **merkeagoak** dira, zati handia Gizarte Segurantzak diruz laguntzen duelako.



**HOBE SENDAGAI HOMEOPATIKOAK**



- Sendagai homeopatikoen **komertzializazioa legeaz zorrotz erregulatuta** dago (urriaren 16ko 2208/1994 Errege Dekretua).
- Homeopatiak pertsona bakoitza izaki bakar eta bakantzat hartzen du, eta **egokitu** egiten dio **tratamendua**.
- Hartzen dituzten **disoluzioez gain**, medikuek gaixoei **ohiturak** eta bizimodua aldatzeko agintzen diete.
- **Umeen artean emaitza** askoz **hobeak** ematen ditu, **gaixotasunei erantzuteko** energia gehiago dutelako.